

ALDEZ AURREKO KONTSULTA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ONDAREARI BURUZKO FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUAREN GAINEKOA

29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 9. artikulua xedatutakoaren arabera (29/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, zeinaren bidez onesten baitira xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikako jarraibideak), eta herritarrek araugintzako xedapenak egiteko prozeduran izan behar duten parte hartzea hobetearren, alde zuzeneko kontsulta bat gauzatu nahi da, goiburuan adierazitako aurreproiektua egiteko, jakitearren zer iritzi duten herritarrek eta egiteko den arauak eragin ahal dien erakunde ordezkaritasun handienekoen honako hauei buruz:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna.
- Arauaren helburuak.
- Ordezko konponbideak, arautzaileak zein arautzaile ez direnak.

Horretarako, kontsulta hau egitea proposatzen da, zeren eta xedapen bat baita egitekoa herri jabariko ondasunak, foru ondareko ondasunak eta foru erakundeetako ente batzuek eta besteek ondarearen arloan gauzatzen duten jaduna arautzeko araugintza esparru bat ezartzearen, jakitearren herritarrek eta xedapen horrek eragin ahal dien erakunde ordezkaritasun handienekoen zer iritzi duten.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2018ko uztailaren 16ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	<p>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak Arabako lurralde historikoko foru ondareari buruzko foru arauaren aurreproiektua egiteko prozedura hasi du.</p> <p>Hori dela-eta, 377/2018 Foru Araua onetsi da, ekainaren 14koa, prozedura horri hasiera ematen diona.</p> <p>Probintzia ondasunen araubidea, diren jabari publikokoak nahiz ondare ondasunak, Arabako lurralde historikoaren eskumen eskusiboko gaia da, Euskal Autonomia Erkidegoko estatutuaren 37.3.d) artikulua ezarritakoaren arabera.</p> <p>Ondareari buruzko Foru Araua, gaur egungoa (5/1998 Foru Araua, otsailaren 23koa), 1998. urtean onetsi zen, eta berak arautzen ditu lurralde historikoko erakunde batzuek eta besteek ondarearen, jabari publikoko ondasunen eta</p>
--------------------	--

	foru ondareko ondasunen arloan gauzatzen duten jarduna.
KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Foru arau hori onetsi zenetik igarotako denbora, harreman juridiko eta ondarezko berriak agertu izana, beste harreman batzuk eraldatu izana, eta erakunde antolaketako modu berriak agertu izana direla zio, komeni da arau hori eguneratzea. Horretarako, aukera gomendagarriena, argiena eta segurtasun juridiko handienekoa foru arau berri bat egitea dela iritzita, gaia osorik arautuko duena eta orain indarrean dagoen foru araua eguneratu, osatu eta ordeztuko duena, foru arau aurreproiektu bat egingo da, lurralde historikoko foru ondarea arautzeko.
HURA ONESTEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Horrenbestez, beharrezkoa da foru arau berri bat onestea eta, halaber, indarrean dagoena indargabetzea, onestekoa den berri horrek osorik ordeztuko duelarik.
HELBURUAK	Foru arau berri honen xedea da jabari publikoko ondasunak eta foru ondareko ondasunak arautzea, eta, orobat, foru erakundeetako ente batzuek eta besteek ondarearen arloan gauzatzen duten jarduna arautzea, eguneratuki eta osoki. Era berean, hizkuntza ez-sexista baliatu nahi da.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Komenigarritzat jo da foru arau berri bat idaztea, indarrean dagoena ordeztu eta indargabetzeko. Segurtasun juridiko handiagoa lortzearren, betiere.